

Santutegiko Frantziskotar Senitartea

Joseba Intxausti

Arantzazuko Santutegia ezerk indartu badu, herritarren atxikimenduak indartu du. Baina horrekin batera, guztia gidatu, sustatu eta Arantzazuri iraupena eman diona bertako Fraideartea izan da. Hola izan da Historia osoan, eta nabariago, nahi bada, azken mende eta laurdenean. Horregatik, ezinbestekoa da Santutegiko bizilagunei buruz oinarriko zenbait datu hona ekartzea.

XVI.eko lehen urteetako eta lehentxeagoko sortze-garaietako historia ostera ere berrikitan aztertua izan da, Anaia Kandido Zubizarretaren eskutik, eta jatorburuak ezagutzeko argitarapen horretara joan beharra legoke: *Los orígenes del franciscanismo en Arantzazu. Glosas histórico-críticas*. Hemen hori jakindakotzat emango dugu, eta XIX-XX. etara bilduko gara.

1. SENITARTE ANITZ ETA ALDAKORRA

Arantzazuko fraideen bizi-lagunartea anitza izan da, eta aldatuz joan da. Hortaz, komeni da, estatistika zehatzetan sartu aurretik, lagunarte horri buruz argibide orokorren bat edo beste ematea.

1. 1. Senitarte anitza

Arantzazuko Nagusiaren esanera bizi izan diren menpekoen artean, ez dute denek lotura eta menpekotasun bera izan bertako eliz erakundearekin: batzuk erlijiosoak izan dira osorik, fraide frantziskotarrak alegia, Apaiz nahiz Anaia Laiko. Besteak, ostera, soilik ikasketak egin edo fraide heziketa hartzeko Arantzazura bildutakoak, hau da, Seminario Txikiko mutikoak edo komentuko laikogai edo "donatuak". Hirugarren talde bat, erlijioso izan arren, ikasturteetan bakarrik egon da han Santutegian, "korutarrak" deituena da hau, eta Filosofia edo Teologia ikasten ziharduten gazteena.

Bestalde, erlijioso eta bertako egoiliar iraunkorrakoak zirenen artean ere, batzuk hilabete edo urte gutxi batzutan bizi izan dira Arantzazun, eta, azkenik, bada bere fraide bizi-aldi osoa Santutegian eman duenik ere, beste komentutako bizi-egoiliar izan gabe.

Arantzazuko lagunarte zabala bere unerik jasoenetako batean nolakoa zen eta nola zegoen banatuta jakiteko ongi etorriko da ondoko lauki hau, bere estatistika eta guzti (ik. Crónica 1970: 485):

*Santutegiko bizilagunak
Taldekako barne-banaketa (1970)*

<i>Fraide taldeak</i>	<i>kopurua</i>
<i>Apaizak</i>	<i>48</i>
<i>Anaia Laikoak</i>	<i>34</i>
<i>Gazte korutarrak</i>	<i>48</i>
<i>Nobiziaak*</i>	<i>7</i>
<i>Donatuak</i>	<i>5</i>
<i>Mutiko fraidegaiak</i>	<i>287</i>
<i>Morroiak</i>	<i>2</i>
<i>Orotara</i>	<i>431</i>

* Zarauzko Nobiziategia itxi zenez geroztik

Fraidearte mugatua deituko dugu lehenengo bi taldeek (Apaiz eta Anaia Laiko profesadunak) osatzen duten multzoa, hau izan baita Arantzazuko Senitartearen gorputz nagusia eta iraunkorra, hots, Arantzazuko Komunitatea.

Fraidearte zabala, ostera, lehen multzo horrek eta bigarrenak (Gazte Korutarrak, Nobizioek eta Donatuek), elkarrekin batera osatzen dutena da. Gazte korutarrak juridikoki zinezko erlijiosoak dira, fraide-profesa egina baitute, baina

apaiz-ikasketak egiten ari direnez aparteko bizi-erregimena dute, guztien buru "Maisu" bat dutela; Santutegian pasaerako egoeran daude. Hemen ageri diren Nobizio eta Donatuak, Anaia Laikoetarakoak dira, horretarako hezkuntza jasotzen ari direnak, eta, hortaz, oraindik ez dira erlijiosoak. Baina, Etxeko lanetan, balira bezalatsu dihardute lanean eta eguneroko bizitzan; horregatik Fraidearte zabalekotzat ematen ditugu, estatistiketan ere.

Azken multzoa Fraide-Senitartekoak ez direnek osatzen dute, hau da, Seminarioko mutiko fraidegaiak eta Santutegiko morroiek. Lehenengoak asko dira, bigarrenak gutxi. Ez dira erlijiosoak, baina Santutegiko Nagusien esanetara daude beren bizieraz eta lanbidez, eta, esateko, teiltupe berean eta "sukalde" beretik janean.

1. 2. Komentu-ingurukoak

Etxebizitzaren aldetik, lehenengo bi multzoak Basilikari atxikirik dagoen komentu-erakin handian bizi dira, eta morroiren bat edo beste ere bai, Gomiztegin bizi ez baldin bada, behintzat. Mutiko fraidegaiak "Kolejio Serafikoa" (1909-1968) eta "Frantziskotar Seminario" edo Seminario Txikia (1969-1990) deituan bizi izan dira, Basilikatik kaminoz beste aldeko erakin zaharrear, eta Seminario berria ireki zenetik enparantza handiaren ondoko eraikin handian (1968). Frantziskotar Seminarioko Irakaslegoak ere bertan izan zuen bere bizilekua, nahiz eta komentuko Fraideartearen parte zen. Dena den, Ikastetxe zen heinean, berriazko gobernabidea zuen, Errektore eta Kontseiluarekin eta betiere heziketa-jardunean Probintziatik zegoena.

Santutegi-gunetik urrunduta, bi fraide-etxe daude juridikoki Santutegikoak direnak, bata Arantzazu-inguruetan (Gomiztegiako Baserria) eta Oñatin Bidaurretako Bikario-Etxea, bertako klaratar eta abarren zerbitzuan. Gomiztegi Santutegiarekin duen eguneroko loturagatik (kapilaua, Santutegiaren hornikuntza, etab.), idazlan honetako datuetan gogoan hartuko dugu, Bidaurretakoa bere beregaintasunean



ELIAS ARREGI ETA BESTE KAPILAUAK

Santutegia erre (1834) eta Ama Birjinaren irudia Oñatitik Arantzazura itzuli ondoren (1846), bestelako egoera izan zen hemen: Fraide-Senitartearen ordeztu, fraide izandako apaiz-kapilau taldetxo bat jarri zen bizitzera Arantzazun. Lagunarte honen buru Elias Arregi arrasatearra izan zen hogeita hamar urtetan, hil zen arte (1847-1877). Hauen lana izan zen Arantzazuko Andra Mariarenganako herritarren jaiera sustatu eta gidatzea, eta galdu edo saldutako ondasunetik ahal zena berreskuratzea. Egia esan, 1878tik berehala Epeldek lortutako arrakasta, neurri batean, kapilau hauek seguratatutako segidatasunari zor zaio, eta berauen oroitzapena berritzekoa da hemen.

uzten dugun bitartean. Gomiztegiko Anaiartea ohiko jardunean Arantzazukoaren parte da, nahiz eta Santutegitik bertatik zerbait urrun dagoen; hala ere, beren otoitz eta jatorriak baserrian bertan egin izan dituzte Anaiek.

Senitarteko atal diren horien ondoan, Santutegitik kanporako bi zerbitzugune daude: Ostatu-Etxea eta Gogartetxea. Hauek ere, juridikoki Fraideenak dira, eta, zuzenki nahiz Probintziaren bidez, funtsean frantziskotar agintarien menpe daude, eta Santutegiko agintaritzak eskumen osoa edo zabala du horietan.

1. 3. Lagunarte aldakorra

Hau dena aldakorra izan da, XX. mendean zehar. Komentua izanberritu eta berehala jarri zen Santutegian, adibidez, fraide gazteentzako Ikastegia (1884: lehenengo Filosofiarakoa, eta gero, 1928tik aurrera, Teologiarakoa), baina 1978an itxi zen hori. Seminario Frantziskotarrak ere aldakuntza handiak ezagutu ditu, izan ere izen horrekin edo besterekin bistakoa izan da bere barne-bilakaera, eta baita hazkuntza eta lekualdatzeak ere; horrek guztiak izan ditu bere mugarriak: 1909, 1921, 1968.

*PADRE E. ARREGI Y LOS DEMÁS CAPELLANES
El incendio de 1834 y la inexistencia de una
Comunidad religiosa dejaron en situación
precaria al Santuario (1834-1878); tan sólo, la
presencia permanente de un Capellán Mayor
y demás Capellanes permitió la continuidad,
aunque mermada. El arrasatearra Elias Arregi
(en el centro) fue la figura que mejor encar-
nó esa etapa.*

Gomiztegi 1950.a arte ez zen izan Santutegiarena, baina ordudunik hona beti egon da baserrian fraide-taldetxoren bat, Anaia Laiko eta morroiekin.

Bizilagunen zifra aldakorren arabera, fraide-kopurua aldetik Santutegiko gizarteak 120 urtetan egoera oso ezberdinak ezagutu ditu, lehen orduko fraide-kapilau gutxi haietatik hasi (1878), eta 1960. etako unerik altuen hartaraino iritsi eta gaur egungo egoera apalagora etorri arte.


Pertsonalaren aldetik, frantziskotarren komentuek joan-etorri handikoak dira. Beneditarren tradizioan monjeak Monasterioarekin duen leku-lotura moldea Eskeko Ordenen artean ez da ezagutu izan, eta horrek bere ondorioak ditu Arantzazun. Modu batera edo bestera Arantzazuko Probin-

1940 KO SENITARTEA



Argazki honetan daukagu bilduta urte jakin bateko Senitartea, fraide guztien argazki eta izekin. 1940ko abuztuaren 15eko argazkia da. Banakako argazkitan emango ditugu argazki originalean ertzetan emanda ageri direnak. (Agiriko ortografia berarekin jaso dugu).

Esta foto suple, con creces, al así llamado "Estado del Personal" que la Crónica conventual se olvidó de consignar en 1940. Agregamos de forma individual las fotos de quienes figuran así en la orla de la foto original.



FRAIDEARTEA (1940)

1. Hº Eloy Portilla
2. Hº José I. Múgica
3. Hº Juan Puig
4. Fr. Rufino Mondragón
5. Fr. Julián Uribechebarria
6. Fr. Francisco Arsuaga
7. Fr. Ramón Leceta
8. Fr. Blas Unanue
9. Fr. José Francisco Ormazabal
10. Fr. Andrés Aldasoro
11. Fr. José Mº Izaguirre
12. Fr. Antonio Odriozola
13. Fr. Ignacio Aguirre
14. Fr. José Antonio Lizaso
15. Hº Miguel San Pedro
16. Fr. Agustín Ansotegui
17. Fr. Juan Blas Arana
18. Fr. Antonio Lasuen
19. Fr. Antonio Arriandiaga
20. R. P. Pedro J. Peñagaricano
21. Fr. Carlos Gastesi
22. Fr. Manuel Gaztelu-Urrutia
23. Fr. Javier Mº Alvarez
24. Fr. Lorenzo Barañano
25. Fr. Luis Esnal
26. Fr. Luis Urbina
27. Fr. Antonio Auzmendi
28. Fr. Serafín Abaitua
29. R. P. Andrés Inchaurre
30. R. P. Felipe Aguirre
31. Fr. Juan A. Michelena
32. Fr. José Mº Beristain
33. Fr. Miguel Amundarain
34. Fr. Román Iurrioz
35. Fr. Vicente Astaburuaga
36. Fr. Julián Peña
37. Fr. Luis Albizu
38. R. P. Eliseo Bengoa
39. Fr. Alfonso Prieto
40. Fr. Saturnino Nalda
41. Fr. Valentín Beltrán
42. R. P. Andres Saralegui
43. Fr. Luis Arregui
44. Fr. Luis Villar
45. Fr. Casiano Urquidizar
46. Fr. Luis Zabala
47. Fr. Eulogio Aguirregabiria
48. Fr. Eusebio Gutiérrez
49. Fr. Luis Cosme Ruiz
50. R. P. Manuel Oroquieta

51. R. P. Cándido Izaguirre
 52. R. P. Francisco Ajuria
 53. R. P. José A. Ladrón de Guevara
 54. R. P. José R. Mendizabal
 55. R. P. Leonardo Celaya
 56. Fr. Isidro Garro
 57. Fr. Francisco Alzola
 58. Fr. Isidro Guerra
 59. Fr. Manuel Alberdi
 60. Fr. Cándido E. Ezcurra
 61. R. P. José A. Alústiza
 62. R. P. Angel Uribe
 63. R. P. Julián Bastarrica
 64. R. P. José I. Ibarbia
 65. R. P. José L. Sarrigoitia
 66. R. P. Bernardo Aperribay
 67. R. P. José G. Aguirreche
 68. R. P. Benigno Iturriaga
 69. R. P. Lázaro Arrizabalaga
 70. R. P. José María Arregui
 71. R. P. Enrique B. Gutiérrez
 72. R. P. Buenaventura Mendataurigoitia
 73. R. P. Roque Michelena (Guardián)
 74. R. P. Silvestre Larrañaga
 75. R. P. Ignacio Aguirre
 76. R. P. Fructuoso Andueza
 77. Fr. Francisco Elustondo
 78. Fr. Daniel Elcid
 79. F. Victorio Beain
 80. Fr. Fermín Errasti
 81. Fr. Ignacio Sodupe
 82. Fr. José Mº Biain
 83. Fr. Damián Izco
 84. Fr. Juan Arriarán
 85. Fr. Alejandro Valencia
 86. Hº Carlos Vergara
 87. R. P. José A. Urquiola
 88. R. P. Tiburcio Igartua
 89. R. P. Vidal Larraz
 90. R. P. José Biain
 91. R. P. Jesús Goitia
 92. R. P. Ignacio Mº Iguaran
 93. R. P. Ciriaco Rupérez
 94. R. P. Carlos Omaechevarria
 95. R. P. Mauricio Pérez de Arrilucea
 96. R. P. Agustín Guibert
 97. R. P. Cosme Lamarain
 98. Fr. Gabriel Satrustegui
- Los cuatro últimos residentes en Bidaurreta



78



79



80



81



82



83



84



85



86



87



88



89



90



91



92



93



94



95



96



97



98

tziako (orain arte "Kantabria" deituko) ia fraide denak pasa dira Santutegitik, sei-zazpi urte bederen bertan emanez (fraide apaizgai ia denek eta Anaia Laikogai askok hezkuntzako hiruzpalau urte bertan bete dituzte). Hori ia guztiena izan da, baina horietako hainbatek bere bizileku arrunta ere izan du Arantzazun gero.

Hezkuntza urteetatik at Santutegian bizi izan direnak ditugu hemen estatistikoki interesatzen zaizkigunak. Fraide bizilagunen artean, hemengo beren bizialdiak iraunaldi arrunt ezberdinekoak izan dira: hilabete batzuk, urteren bat edo beste, hamarkadaren bat, edo azkenik inoiz ere bai bizitza osokoak.

Apaizen artean, Anaia Laikoetan baino gutxiago izan dira bizitza osoa Santutegian eman dutenak. Hala ere, kasu ezagun batzuk badaude Apaizetan ere, segidan urte anitz emandakoak: F. Andueza irakaslea (1911-1961), K. Gastesi irakasle eta predikaria (1942-1994), K. Zubizarreta liburuzaina (1942...), J. A. Amundarain kronikaria (1943-1993), L. Villasante irakasle eta idazlea (1947-2000), eta ez da falta berrogeiren bat urte edo emandakorik (J. Alustiza, J. Zubieta, etab.). Baina, azkenean, Apaizen hauek kasu gutxi dira Santutegian.

Besterik da Anaia Laikoen kasua, hauek maizago bizi izan baitira luzaro Santutegian. Dirudienez, arrazoia zera da: Etxeko lanetarako ofizio-trebakuntza edo konfidantza eskatzen duten lanbideek lotu dituztela Santutegiko premietara Anaia hauek. Gogora ditzagun, esate baterako, A. Sasiain ekonomoa (c. 1892-1932), B. Astaburuaga mekanikari eta gidaria (1916-1978), J. F. Artsuaga harakina (1927-1987), J. Elizegi ekonomoa (1945...), L. Agirre harotza (1945...), J. Barroena inprentaria (1948...), J. Etxezarreta limosnari eta sukaldaria (1956...), etab.

Datu horiek iradokitzen digutenez, Arantzazuko komentuko fraideen artean ez dira banatu lanak eta lanbideak denen artean era bakarrean, baizik eta premien eta norberaren gaitasunen arabera. Ordenako legeen terminologia

erabiliz, "fraide-klaseen" arabera egin izan da lanaren, otoi-tzaren eta aisialdiaren banaketa: Apaizen lana, Anaia Laikoen lana. Esan dezagun banakuntza hori nabariagoa zela Kontzilio aurretik, eta gerora denek ere, ahal izan dutelarik, zeregin orotara irekiago ageri direla.

"Etxeko lanak" Anaia Laikoen esku zeuden, Anaia Apaizak irakaskuntzan, predikuan, pastorelean eta gobernu-arduretan ari ziren bitartean. Esklaustrazio-aurretik beste molde batez ageri zaigu lan-banaketa hau, baina XIX. mendean komentuen izanberritzean Anaia Laiko/Anaia Apaizen arteko lan-banaketak muga zehatzagoak izan zituen.

Dena den, Kontzilio-aurrean ere lan-banaketa horrek ez zuen esan nahi, beste gabe, erantzukizun handiko eta jasoko lanak Apaizentzat izaki, apalak eta botere gabekoak Anaia Laikoei ematen zitzaizkien. Banaketa ez zen hain ximpleki gertatu: Santutegiko ekonomiaren ardura kontablea, eta juridikoa ere (Sindikari ere bazenez), ia beti Anaia Laikoren baten esku egon da. Era berean, lantegi produktiboen gidaritza ere bai: Gomiztegi edo Inprimategikoa, adibidez.

Bere eraikin materialetan ez ezik, Santutegian bizi izandako segidako belaunaldien artean, mota guztietako jarraitasuna aldatuz joan da funtsean (bizimoduak, lan berriak, osasun-zerbitzuak, etab.), datu koantitatiboek sarritan berekin ekarri ohi dituzten biziera koantitatiboak ere aldatzen zirelarik. Eta, erran gabe doa, bizilagunetan pertsona bakoitzak egin duela hor bere ekarpena, kasu eta une batzuetan erabakiorra izateraino. Guztien eta bereziki honelakoen biografiak aintzakotzat hartzekoak dira; baina, hemen lekurik ez dugunez, oraingoz beste baterako geratu beharko dute.

1. 4. Aniztasunean ere, barne-lokarriak

Santutegiko munduaren batasuna segurtatu duten lokarriak ere gogoraraztekoak ditugu orrialde hauetan, barne-bereizketa edo denboran zeharreko aldakuntzak aipatuta gero, izan ere Fraidearteko (Komunitateko) batasun fin-

koa eta jarraitasun leiala funtsezko bizi-balioak izan baitira Arantzazun. Barne-loturen arrazoi sozial eta historikoak ez dira gutxi.

Fraideak, normalean, oso baitaraturik du Ordenako historia, bere Santuen arrakasta, munduan zehar Senitarteak duen hedapen eta esanahia: Familia handi bateko parte sentitzen du bere burua fraideak. Behin eta berriro irakurri eta entzun ditu, taldean eta bere gelako bakardadean, San Frantzisko Asiskoren hitzak. Maite du honen izpiritua, eta frantziskotar Senitartearena. Alde horretatik, gure egunetako heziketa orokorrari aurrea hartuz, ibili dabilen etenik gabeko hezi-bidean doa fraidearen bizitza.

Bestalde, mundu honetako errealitate lurtarrago batez mintzatuz, esan dezagun fraideak ekonomia amankomun bakarrean bizi direla. Komentuak erosotasun handi edo eskasak izan ditzake, noski, baina betiere dena guztiena da, eta

► FRAIDEAK ETA FRAIDEGAIK (1952)
Sépinski Jeneralak Santutegira egindako ikustaldiko argazkia (1952ko apirilaren 20an). Aurreko urrian Santutegiko Kronikak zioenez, 267 lagun ziren Arantzazun bizi ziren fraide eta fraidegaiak

RELIGIOSOS Y SEMINARISTAS (1952)
Esta es la Comunidad grande del Convento, juntamente con los seminaristas. Foto tomada con ocasión de la visita del Padre Ministro General al Santuario.



bere bakarkako pobrezian ere, ondasunen amankomuntasan hori da denen babes eta aberastasun berdin bakarra. Hortaz, babes segurua eskaintzen dio bakoitzari Fraidearteak, eta aterpe amankomun honek ere komentu-barneko batasunari laguntzen dio, noski.

Eguneroko bizimoduan, erlijioso guztiek aldi, eduki eta tonu bereko bizipen elkartu asko dute. Eguneroko ordu-tegiak eta urtean zeharreko egutegi berak bizi dituzte, nahiz eta frantziskotarren artean bakoitzaren bere kabuzko ekime-nak eremu nahikoa irekia izan duen, eskasago Kontzilio-aurrean, libreago ondoren. Lanak Fraidearteko lagunak tal-detan banatzen baldin baditu, eguneroko otoitz-aldiek eta jatorduek berriro ere bateratu egiten ditu denak, ordu eta leku beretan.

Hau hala izan da, mende osoan zehar; hala ere, gogora daiteke bizitzaren erritmoak molde berriak hartu dituela Kontzilioaren ondoren, malgutasun handiago batekin, eta norberaren hautapenei aukerabide zabalagoa emanez.

Lagunarte ongi tratatua da Fraideartea, norberaren hobespen pertsonalak ukatu gabe. Taldekako elkarren arteko ekitaldien ondoan, norberaren espazio eta denbora pribatua dago, gela: gelako bakardadean pentsatu egiten da, irakurri,

ERDIKO LERROAN:

AGUSTIN BIAIN
JOSE ESTENSORO
PATXI IRIZAR
JOSE LUIS ELORTZA
ROBERTO LINKEL
(BI EZ FRANTZISKOTAR)
DAMIAN ZABALGOJEASKOA
JAVIER UNANUE
ANJEL M. EZEIZA

ESERITA, EZKER-ESKUIN:

JOSE MIGEL ESNAOLA
JUAN PEDRO GUARROTXENA
IÑAKI ARRIAGA
GOTZAINA: I. LARRAÑAGA
PEDRO M. ELKOROIRIBE
FRANCISCO JIMENO
LUIS ZABALA
ANTONIO ZUBIZARRETA

GOIKO LERROAN (SUBDIAKONUAK):

MANUEL AJURIAGOJEASKOA
ANJEL M. GZ. DE TXABARRI
GREGORIO CARAZO
JUAN JOSE AGIRRE
PATXI ARRUTI
JUAN AZURMENDI
RUFINO MADINA



▶ APAIZ ETA SUBDIAKONUAK (1960)
1955-1965 urteetan apaiz egindako gazteak lehenago baino ugariagoak izan ziren Arantzazun. Argazkian ikus dezakegunez, 1960an, 15 izan ziren urte hartan apaiztuta-ko frantziskotarrak, eta 8 hurrengo urterako apaizgai subdikonuak (argazkiko bi gazte ez dira Santutegikoak, beharbada Oñatiko late-randarrak baizik). Gotzaina, Ignazio Larrañaga Lasa Aita Kaputxinoa da (1892-1975).

SACERDOTES Y SUBDIACONOS (1960)
Fueron numerosas las Ordenaciones sacer-dotales, de modo especial por los años 1955-1965. En la foto pueden verse los ordenados en 1960.

otoitz egin, poztu eta, behar denean, norberaren tristurak zaindu. Zernahitarako balio du txoko horrek.

Ildo nagusi horiek horrela, komeni da Senitarteari begiratu zehatzago bat ematea, eta zenbaki batzuk bederen kontuan hartzea.

2. MENDEBETEKO FRAIDEARTEA (1878-2000)

Arantzazuko komentuko Anaiak, denak, frantziskotarrak dira, Asis-ko Frantzisko aitortzen dute beren Aitatzat, eta beronen jarraitzaileak dira.


1501.a aitzitik Arantzazura etorri ziren fraideak, Obserbantiako frantziskotarrak ziren. Familia frantziskota-

FRAIDEARTEA (1964)

Hau da, seguraski (datu hobearik ez dugun bitartean) Santutegiak ezagutu duen fraide-talderik handiena: aurreko urteko urrian esaten zaigunez, 173 lagun fraidetzat edo eman ditzakegunak (eta beste 5 morroi langile). Orduantxe zegoen indar betean Kontzilioa, Seminario Berria eraikitzen ari ziren Arantzazun eta 77 ziren Teologi ikasleak. Inork gutxiak pentsa zezakeen urte eskas barru halako aldakuntzak etorriko zirenik. Argazkia 1964ko apirilaren 22koa da, eta guztien Nagusi Aita Pedro Aranguren ageri da.

COMUNIDAD RELIGIOSA (1964)

Esta es posiblemente la mayor Comunidad de religiosos que haya conocido nunca el Santuario de Arantzazu, con 173 miembros. En ese momento el Guardián era el P. Pedro Aranguren.



rreko Adar hau, 1897an, Leon XIII.ak beste hiru Ordena frantziskotarrekin batu zuen, "Batasun Leondarrera" bilduz. Handik hona, Batasun horretako laurak Institutu Erlijioso bakarra izan dira Elizan. Hau da gaur egun "Arantzazuko fraideak" deitu izan ditugunen Ordena. Erakunde batu honen izen ofiziala zera da, latinez: *Ordo Fratrum Minorum* (OFM), hots, "Anaia Txikien Ordena". Gizonezkoen familia frantziskotar zabalean, Institutu hau izan da handiena XX. mendean, kaputxino eta komentutarrenen ondoan, denak ere Aita bat beraren oinordeko direla.

2. 1. Lehendik ere, Fraidearte handia

Arantzazuko mendiartean lekututako lagunarte erlijioso ia beti izan da talde aski handia, eta zinez handia ere. Herriz kanpoko komentuetan ez zen hori horrela izaten Euskal Herriko frantziskotarren artean; aitzitik, herrietako eta areago hiriburuetakoko komentuek handiak izan ohi ziren, eraikinez eta fraidez. Arantzazuk bere historia guztian izan du itxuraz ez zegokion tamaina, XVI-XVIII.etan, eta gero. Inondik ere, Probintzia erlijiosoaren hobespenak sustatu zuen Santutegiko garapen hau.

XVI.aren hondarretan (1585), 36 fraide zeuden bizitzen Komentu honetan (horrela, jada Probintzia erlijiosoko handien artean zegoen), baina laster gora eta oso gora egin zuen horrek, 1622rako 80ren bat izateraino, agi denez. Horren pareko beste Komenturik ez zegoen, noski, Gipuzkoan, ez Ordena honetakorik eta ez besteetakorik.

Hurrengo estatistikek berretsi baizik ez dute egiten Arantzazuren izaera hau, berau Gasteiz eta Bilboko komentu handien parekide bihurtuz: 80 fraide (1680), 61 (1700) eta 95 (1768). Azken urte honetan, gainera, hiriburu haietako Etxeetako Fraidearteak baino ere haziagoa ageri zaigu Arantzazukoa. 1768an berau zen Probintziako Senitarterik handiena, denen aurretik. Horrek bere zergatiak baditu, noski, baina ez gara orain horretan luzatuko.

1834ko erreketak eta berehalako Esklaustrazioak erabat irauli zuten aurreko mendeetako egoera: Arantzazu Fraiderik gabe geratu zen, fraide ohiak ziren apaiz diozesitar banaka batzuek kapilau gisara zituela. Hori izan zen 1846tik 1878rainoko Arantzazuko elizgizonen lagunartea, Aita Elias Arregi arrasatearra Kapilau Nagusi zela.


Interesgarria da handik honako Fraideartearen bilakera, 1878an Senitarte txiki bat izatetik historian inoiz izan den handiena izateraino heldu baitzen 1960.eko hamarkadan, ondoren kopuruz behera egin eta adinez gora egiteko.

Santutegia izanberritu eta berehala, 1881ean, Arantzazukoak 13 lagun zituen bakarrik, eta horietako lau gutxienez "simplemente moradores" zirela esaten zaigu, hau da, fraidetarako urratsa eman gabekoak, artean (urte beretan, Zarauzko Etxea askoz formalagoa zen, fraidez eta nobizioz ongi hornitua).

2. 2. XX. mendeko goraldia

Hasiera ahul horren ondotik, ordea, Probintziak deliberamendu erabakiorrak hartu zituen, eta 1884ko udazkenean Filosofiako fraide ikasleak (korutarrak) Arantzazura etorri ziren, Santutegian ireki zitzaizen Ikastegira. Horren ondorioz, Fraidearteak 32 Anaia izan zituen orduan, bi Irakasle ere tartean zirela. Ondoko hamarkadetan, 1978a arte, Arantzazuk beti izan zituen bere korutar gazteak.

Goian aipatu dugun Fraidearte zabalak, 1884ko 32 lagun haietatik hasi eta aldarte txikiekin gorantz egin zuen ia beti, 1970.eko hamarkada arte, gisa honetan:



FRAIDEARTEA MENDEAN ZEHAR
 Grafiko honetan laburtu dugu Santutegiko Senitarteren ibilera estatistikoa: XX. mendeko erdialdera izan da Arantzazun sekula baino lagunarte handiagoa.

A LO LARGO DEL SIGLO
 El gráfico sirve para mostrarnos la evolución estadística de la Comunidad, y también para recordarnos que la más numerosa del Santuario en toda su historia ha sido la de las décadas centrales del s. XX.

Ikus daitekeenez, bi hamarkadatan egin zen lehen jauzi handia, 42 lagunetatik 72 eta 101eraino iristean; hurrengo hiru hamarkadetak (1941-1970) ere olatu horren gorako indar osoa dute, 140 laguneko sabaia hautsiz, eta tarteko urte batean, 1965ean, 173ko kopurua duela. Badirudi une hau izan zela, Santutegiak bere Historia osoko Senitarterik handiena bildu zuena.

Laukian ageri den 1970.eko zifrak gazteen arteko krisiaren atarian jartzen gaitu (zenbait korutar bere etxera joan zenekoan), eta azken hamarkadetak lauiko beste kopuruek ez dute zenbatzen korutarrik, ikasten jarraitu zuten fraide gazteak beste komentuetara lekualdatu zirelako. Lehenago, etorri-joanean zihoan korutarren talde honen bilakaerak (pasaerako urte laburrak beti beronenak) Arantzazuko giza paisajea gaztetasunez tindatzen zuen, geroa segurtatzen zion Probintziari, eta zeharka Santutegiari. Pastoraltzan ez zuen berez pisu handirik, baina bai elizkizunetan (gogora abesbatza). Komeni da, bada, aipatu arrazoiengatik korutar gazteei buruz zerbait jakitea.

1884an, Filosofia jarri zenean, fraide ikaslego txikia zegoen Arantzazun, hala ere Komunitatearen barruan erlatiboki handia zen korutarren kopurua: 32 lagun zenbatuetako 22 ziren ikasle gazteak. Multzo honek ondoko hogeita hamar urteetan behera egin zuen: 22 ziren 1891ean, 16 (1890), 9 (1910); baina, oraindik garbi ez dauzkagun arrazoiengatik, 1910.eko hamarkadan gorako bidea hartu zuen korutarren taldeak: 27 (1920), 24 (1930), 36 (1941), 68 (1950), 58 (1960), 47 (1970), 14 (1977). Hirurogei urteko goraldiaren ondoren, 1970. eta lehen partean etorri zen behera ikaslego hau, esan bezala 1978an Santutegitik beste Etxeetara joan aurretik. Orokorrean Eliza osoan izan diren zio berengatik gertatu zen hori, eta Euskal Herriak izandako urte haietako mentalitate-iraultketaren bidetik.

Fraide ikasle gazteena begiratu ostean, Fraidearte mugatura baldin bagatoz, ordea, errealitateak bestelako ñabardurak ditu. Egia da fraide-fraideen multzo honek ere (fraide ikaslerik gabe hartuta, alegia) gora egin zuela, baina, hasieran, ez abiadura berean eta zifra-tamaina haiekin. Kopuruak gogoan hartzekoak dira, zeren Fraidearte mugatua baita, azken finean, Santutegiko Komunitate egonkorra:

*Arantzazuko fraidetarte mugatua
(1881-2000)*

<i>Urteak</i>	<i>Fraideak</i>
1881	15
1910	33
1941	65
1950	61
1970	91
2000	44

Hirurogei urtetan (1910-1970) kasik hirukoiztu egin zen Arantzazuko Fraidearte mugatua, baina azken hogeita hamarretan 1970.eko kopurutik erdira baino beherago etorri da. Datu hau berehala aipatuko dugun batezbesteko adinarena-ekin gurutzatzen badugu, milakadaren bukaerako egoera ez zaigu ageriko batere baikorra. Hori berehala ikusiko dugu.

Eta Fraidearte mugatuan nola banatzen ziren erlijioso-klaseak? Anaia Laikoen eta Apaizen arteko kopuru-portzentaiak nahikoa orekatuak izan dira Arantzazun, agian beste komentuetan baino orekatuagoak, izan ere Santutegiko lan-tegiek (baserria, inprimategia, etxe handi bateko mantenu-eta zerbitzu-lana) Anaia Laiko dezenteren lan-eskua eskatu baitute. Bi fraide-moten arteko oreka hori, ba, honela, islatzen dute zifrek: 10 Apaiz eta 5 Laiko (1881), eta hurrenez hurren 20/13 (1910), 30/35 (1941), 48/43 (1970), 38/30 (1980) eta 24/20 (2000). Orekatasun hau urrun dago, noski, Arantzazuko Probintziak, bere osoan eta unerik onenean-edo ageri zuen portzentaia desorekatuetatik, 1964an % 25 baka-riik baitziren Anaia Laikoak barruti horretan, eta ez Arantzazun bezala erdiak edo. Santutegiko berezitasun horrek ez du, ordea, berori Probintziako izan-egituretatik

banatzen, ezta gutxiagorik ere, aitzitik Probintziaren eraba-kiz ere gertatu da hori Arantzazun.

Frantziskotarren komentuak Probintziako barruti zabalagotik bizi dira, eta beronek fraidegaiak bildu eta hezi-tzeko dituen Ikastetxe eta Ikastegietatik jaso ohi du fraide gazte berrien odola. Arantzazuko Probintziak, hain zuzen, Santutegian izan ditu horretarako Fraidegaitegiak, bata gaz-tetxoentzako eta bestea fraide gazteen azken ikasturteetara-koa. Ikastetxeok beren goraldia izan zutenean, Probintziako nahiz Santutegiko Senitarreek ere goiti egin zuten, hain zuzen mendearen erdiko hamarkadetan (1940-1970). Ikaste-txe haiek ixtean, Arantzazuko Fraidearte, txikiagoa izateaz gain, zaharrago bilakatuko da.

*Fraidetarte mugatuaren
batezbesteko adina (1881-1995)*

<i>Urtea</i>	<i>Bat. adina</i>
1881	50
1910	44
1941	45
1950	44
1970	45
1985	57
1995	67

2. 3. Batezbesteko adinaren bilakaera

Fraidearte mugatuaren osasuna, bizia eta etorkizun segurtatuak nolakoak izan daitezkeen ikusteko balio digu, bere neurrian, fraideen batezbesteko adina ezagutzeak. Bildu

ahal izan ditugun datuek badute argibiderik franko, ikusiko denez.

Aurreko laukiari hainbat ohar egin dakizkioke:

a) Lehen unean (1881), Esklaustrazioetik komenturaturako fraide zaharragoek dute pisua, artean gazteak biltzeko lain denborarik ez baita izan.

b) Baina, ondoko hamarkadetan, heldutasun gazte baten neurria emango du Fraidearteak, XX. mende-hasieratik bertatik 1970a arte edo.

c) Aldakuntza handia gero dator (taldearen zahartze bizkorra), hogeita bost urtetan taldearen batezbesteko adina 22 urte zahartuko baita: 1970tik 1995a bitartean batezbesteko adina 45 urtetatik 67tara iragan da.

Santutegiko fraideen lagunarte honek esandako antolaera izan du eta bilakaera horixe. Baina gauzak ez dira hala-beharrez bakarrik gertatu, gorabeheren artean gizonak egon dira, batzuek egitekoetan kanpotik lagunduz edo oztopatuz, eta besteak barrutik hobekuntzen bila ahaleginean, hauek ere batzuetan asmatuz eta inoiz edo bestetan kale eginez. Nolanahi ere, untzia ez da noraezean ibili, itsumustuan, baikik eta bere gobernu eta lemazainak izan ditu, eta hori da orain begiratuko duguna

3. SENITARTEKO GOBERNUA

Arantzazuko Fraidetegiak bere aginte-piramidea beti izan du, eta gaur ere badu; baina ez da pentsatu behar horretan aldakuntzarik egon ez denik. Aitzitik, Kontzilio ondoren funtsezko berrikuntzarik egon dela esan daiteke, aginte-egituran eta gobernu-molde teoriko eta praktikoa. Azken berrogeita hamar urteetako aldakuntzen ondorioz, agindu beste gisa batean egiten da eta garai bateko esanekotasunak modu eta estilo berriak ditu XX. mendea amaitzean.

Ordenako legeen arabera, frantziskotarren Etxeetako agintariak hiru urtetik behin aukeratu izan dira; ez dago, beraz, bizialdi osorako hautatutako komenturagusi. Gainera, Aita Goardianoa (hori da Nagusi hauen izendapen-modua) jarraian ostera berraukeratua izateko muga jakin bat dago: segidan gehienez bederatzi urte egon daiteke agintzen, gero ordezkoa aurkitu behar zaio (nolatan Erromatik baimen berezirik lortzen ez den). Teorian bederen, honek aukeratutarako malgutasun handia eman izan dio agintaldien segidari, luzatzeko bezala beharrezko aldaketak ezartzeko ere.

Birritan segidan hautatutako Nagusi asko izan da Arantzazun Aro Garaikidean (1794-2000), eta kasik usadio arrunta gertatu da bigarren aldirako aukera hori: zerrenda luzea da bi alditan izendatutako hauen (13 dira horrelakoak). Askoz gutxiago izan dira hirutan jarraian izandakoak: B. Zabala (1797-1804), J. Zubieta (1964-1973) eta J. I. Larrea (1991-2000); bat bakarra izan da lau aldi oso segidan bete dituen: J. T. Zuriarrain (1979-1991). Ikusten denez, hiru edo lau alditakoetan Aro Garaikideko hasiera-hasierakoa da bat, eta besteak azken berrogei urteetakoak, hain zuzen. Hiru hirurteko tartekatutan izandako bakarra P. Aranguren gertatu da (1949-1955, 1961-1964).

Fraidearteko gobernuan laguntzeko, ondoko bigarren bat izaten dute Goardianoek, Bikario deitua, eta zenbait erabakitarako kontseilu txiki batekin (Diskretorio) kontatu beharra daukate, legeek hori adierazitako arazoetan: *Diskretorio* deritzan honek, lehenago batean kontrol ekonomikoa zuen bere ardura handienetako bat, geroztik azken hogeita hamar urteetan Santutegiko plangintza-ekimenak Diskretorioak onartu ohi ditu, Komentuko Batzar irekiera proposamen gisa eraman aurretik. Goardianoak, epealdia burutzean, bere gobernu-deskargua egin beharra dauka, Erromatik datorren Bisitariaren aurrean eta, batez ere, Probintziako Nagusiaren eta Biltzar Probintzialaren aitzinean.

Arantzazuko Nagusiaren aukeratzea ez dagokio formalki bertako Fraidearteari, nahiz eta azken hamarkadetan

Bititariak guztien iritzia jaso ohi duen eta Kapituluaren ondoko Definitorio probintzialak iritzi hori gogoan izan. Hain zuzen, Biltzar edo Kapitulua Probintzian hautatutako Definitorioa da (Probintziako Nagusiaren Kontseilua, alegia) komentuetako Nagusiak aukeratzeko eskumena duena, beraz Arantzazukoa ere bai. XX. mendean behinik behin Santutegiko Goardianotza erantzukizun handikotzat jo izan da.

Komentu frantziskotarretan, Kontzilioa bukatu eta laster, gobernu-tresna demokratiko berria jarri da indarrean, Ordenaren sortze-egunetan egin ohi ziren Anaïen bilera irekiak eguneratuz: Komentu-Batzarra edo Kapitulua Komentuala deitu ohi dena, alegia. Batzar honetan fraide guztiak dute hitza eta boza, eztabaidan eta erabakiak onartzean. Oro har, Etxeko garrantziko erabakiak ez ezik Probintziakoetarako iritzia hemene hartzen dira edo agertzen. 1967.etik hona indarrean dago Arantzazun Komentu-Batzarra, nahiz eta Komentu txiki batzuetan desagertutako Diskretorioak ere Santutegian oraindik bere nortasuna gorde duen, hainbat zeregin txikiagotarako, eta handietan aurrelana egiteko.

4. BEGIRATU OROKOR BAT

XVI. mendeko hasieratan bezala XIX.eko azken partean, Arantzazuko Fraidearteak, izanberritzean, berriro bere Komentu- eta Santutegi-proiektuari ezer gutxitik ekin behar izan zion. Fraide-bizitza berreskuratu ondoren, hazkuntza pausatu batean egin zuen gora, lehenengo hogeita hamar urteetan (1880-1912). Orduan eman zitzaizkion Fraidearte honi bere oinarriak, gizonetan eta barne antolakuntzan.

Ondoko urteak hazkuntza azkarrekoak dira, fraidetakorako etorri ziren gazteei esker eta aldi berean aipatutako Fraidearte mugatua gora zihoala (1910-1970). Azkenik, jarraiko hiru hamarkadetan koiuntura demografiko berria ekarri dute: ez dago apenas fraidegai gazterik, eta Ikastetxe-Ikaste-giak itxi egin dira Arantzazun. Fraidearteko etorkizun-proiek-

tuak bestelako ortzemuga batean jarri beharko ditu helburuak, ba.

XX. mendean ezagutu du Santutegiko Senitarteak historiako bere goi-punturik gorena, lagunarte zabal batekin, eta zeregin eta lantegi eratuekin. Pastoralak ez ezik, gainerako

AGINTARI BERRITZEAK (1964)

Frantziskotarrek hiru urtetik behin hautatu ohi dituzte Komentuetako beren Nagusi edo Goardianoak. Adibidez, hori egin zen Arantzazun ere 1964an, Aita P. Arangurenen aroa amaitzean. Argazkiko lagun hauek dira talde berrikoak: Aita Jon Zubieta da Goardianoa (erdian); Aita Pedro Anasagasti, Nagusiorde edo Bikarioa, eta Aita Jose Maria Galdos, Seminarioko Errektorea. J. Zubieta bere agintealdi hori 1973a arte luzatu zuen, eta ondoko urteetan Bikario izan zen (1973-1976, 1979-1991).

NUEVO EQUIPO DE GOBIERNO (1964)

La elección de los Superiores y Responsables locales entre los franciscanos se hace por trienios. En la foto, los tres principales del Santuario, nombrados en 1964: Padres Jon Zubieta (Guardián), Pedro Anasagasti (Vicario) y José María Galdos (Rector del Seminario).



eginkizun eta asmoek (prentsan, irakaskuntzan, kulturean, hedapen sozialean...) leku ederra izan dute Fraideartearen bizitzan.

Etxe-barruko fraide-bizimoduek aldakuntza nabarmenak izan dituzte, erlijiosoek bizi izan dituzten pentsamoldeen eta baliabide teknikoaren aldakuntzaren ondorioz. Probintzia izanberritzean molde erlijioso zaharrak nagusitu ziren arren, gerora, Kontzilioarekin batez ere, oso aldatu da hura dena, balio onartutan eta eguneroko xehetasunetan.

Elizako Institutu Erlijiosoaren historian, zalantzarik gabe XX. mendea biziki interesgarria gertatuko zaiei etorkizuneko historialariei, mende luzetan indarrean egondako komentu-biziera barru-barrutik itxuraldatu baita mende honetan. Mende-laurden batean gertatu da hori dena, eta Arantzazuko Senitarte hau guztiaren lekuko bizi eta paregabea da Euskal Herriko historia erlijiosoan.

Hemen laburki, eta ez osorik, ukitu ahal izan dugu Senitartearen bilakaera. Izango al da zabalago jarduteko aukerarik ere, V. Mendeurren honetan.

SANTUTEGIKO GOBERNU-KONTSEILUA (2001)

Hau da V. Mendeurrenean Arantzazuko frantziskotarren ohiko Gobernu-Kontseilua («Diskretorioa» deitu ohi zaio), eta Arantzazuko gobernua talde honen eskumenean dago, Santutegia ez ezik Gomiztegi, Bidaurreta, Gogartetxea eta Ostatu-Etxea ere. Mendeurrenarekin batera Santutegiari eman nahi zaion bultzada berrian zeresan zuzena du beronek, Komentuko Batzar Irekiarekin batera.

ESERITA: J. T. Zuriarrain, Goardianoa (erdian), F. Agirre (ezkerrean), J. Zubieta (eskuinean). ZUTIK (ezker-eskuin): I. Beristain, P. Zabala, J. I. Larrea (Bikario edo Goardiano-ordea) eta J. Letona.

CONSEJO DE GOBIERNO DEL SANTUARIO (2001)

La vida de la Comunidad del Santuario es presidida por este Consejo (llamado tradicionalmente «Discretorio»); en él figuran el Padre Guardián (J. T. Zuriarrain), el Vicario (J. I. Larrea) y los Discretos. Para el gobierno de la Casa, el Discretorio debe contar, desde 1967, con el «Capítulo Conventual» en el que participan todos los religiosos de la Comunidad.



MENDEURRENEKO SENITARTEA (2001)

KULTUR ZERBITZUETAN

Santutegiak beti izan ditu bere kultur zerbitzuak, barrurako lehenik, eta kanporako ere. Horietako bat –nagusia– Liburutegia izan da, eta bere kultur ondarean maitekiro zaindu duen Artxiboa. Hona, gaur egun guztion ardua dutenak: K. Zubizarreta (erdian: liburu-artxibozaina), J. Etxeberria (eskuinean: liburuzain-ordea) eta M. Mendizabal (ezkerrean: artxibozain-laguntzaile urtetan ibili dena, Probintzian eta Moja-Komentuetan).

SERVICIOS CULTURALES

El Santuario cuida su patrimonio cultural, bajo el cuidado directo del Bibliotecario-Archivero (K. Zubizarreta, en el centro) y el Bibliotecario Adjunto (J. Etxeberria, a la derecha); M. Mendizábal (a la izquierda) ha participado, desde hace años, en tareas de recuperación de Archivo.

EFA ARGITALETXEAN (2001)

1950.eko hamarkadatik Santutegiak bere Argitaletxea du (EFA), eta beronen lanen artean daude aldizkariak argitara eman eta zabaltzea, eta liburugintzari, batez ere frantziskotarrenei, irtenbidea ematea. Hauek dira gaur egun Argitaletxean bertan lanean dihardutenak: F. Agirre, J. Barronea eta A. Pérez de Arenaza.

EN LA EDITORIAL EFA (2001)

La Editorial del Santuario dispone de un equipo de trabajo que se cuida de la producción y difusión de sus publicaciones, tanto de revistas como de libros.



SANTUTEGIKO EKONOMIA (2001)

Bi fraide hauek bete dute azken mende-erdi osoa Arantzazuko kontuak eramaten eta bertako ekonomiaren gobernuan, betiere Etxeko Nagusien begiradapean. Anaia Joan Elizegi egon da horren kargu luzaro (1945-1997) eta laguntzen segitzen du, eta Anaia Julian Letona da orain Ekonomo edo Sindiko (1997...).

LA ECONOMÍA DEL SANTUARIO (2001)

El «Sindico» es en los Conventos franciscanos el responsable de la Administración de los bienes y el Contable de la Comunidad. He aquí los dos actuales encargados de la economía conventual: Fray Juan Elizegi y Julián Letona (aquél, Síndico desde 1945 a 1997, y éste desde ésta última fecha).



ERROMESEKIN (2001)

Atezaina eta Sakristaua izan dira, apaiz aitor-entzulearekin batera, Arantzazun erromes eta bisitariei harrera egin izan dietenak. Azken mendekoak gogoraraziz, gaur egunekoak dakartzagu hona: Joxe Mari Arozena hernaniarra (atezaina), Joxe Mari Zelaia legorretarra (apaiz aitorlea) eta Antonio Larrea azpeitiarra (sakristaua).

CON LOS PEREGRINOS (2001)

Con este equipo actual de Hnos. Confesor, Sacristán y Portero queremos recordar a todos los religiosos encargados de acoger a los peregrinos en el Santuario, a la hora del primer contacto con el mismo.





IDAZLE LANETAN (2001)

Batez ere Santutegian bertan aldizkariak izan direnetik, Arantzazuko zenbait fraidek idazketari heldu zion (1920 ingurutik aurrera), eta gaur egun ere Komentu honetako zereginen artean dago hori, euskaraz nahiz erdaraz. Horren lekuko dakartzagu hona argazkiko hauek: I. Beristain eta J. L. Zurutuza (aldizkarietan, eta Egutegian), J. L. Albisu (idazlan teologikoak) eta P. Zabala (kazetaritza mintzatuan bereziki).

HOMBRES DE PLUMA (2001)

A lo largo del pasado siglo, la Comunidad del Santuario ha tenido siempre, entre sus miembros, escritores consagrados a estudios de carácter teológico, cultural o periodístico. Una muestra de ello, en esta fecha del Centenario, son quienes figuran en la foto: I. Beristain, J. L. Zurutuza, J. L. Albisu y P. Zabala.

ANAIEN ZERBITZUAN (2001)

Etxeko oinarritzko zerbitzuek halako lagunarte zabalean arreta berezia eskatzen dute; Arantzazun, berrietarako gaur eguneko arduradun izendatuak daude. Hona, hain zuzen, Anaien zerbitzuan ari diren lau lagunok: Eserita: Julian Lete eta Juan Etxezarreta (sukalde-jantokien arduradunak). Zutik: Txomin Garro (erizaina), Joan K. Aramendi (etxezain eta konpontzailea) eta Jose A. Salas (mandataria).

AL SERVICIO DE LOS HERMANOS (2001)

He aquí el cuarteto que atiende en Arantzazu a varios ámbitos de servicios fundamentales: cocina-comedor (J. Lete y J. Etxezarreta), enfermería (Tx. Garro), mantenimiento general (J. C. Aramendi) y recadista-mensajero (J.A. Salas).





ALDIZKARIETAKO ETXE-BISITARIAK (2001)

Arantzazun aldizkariak sortu zirenetik ikusi zen harpidedunen mundua etxez etxe zaindu beharra. Horren ondorioz, aldizkari bakoitzak izan ditu mendean zehar bere ordezkari bisitariak. Hona dakartzagunak Mendeurreneko urte honetan lanean dihardutenak dira: Enrike Arozena, Patricio García, Mariano Lizarrondo.

AGENTES DE LAS REVISTAS (2001)

La continuidad de las publicaciones periódicas del Santuario ha sido asegurada no sólo por el cuerpo de redactores correspondiente, sino también por los agentes comerciales que han garantizado la fidelidad de los suscriptores a cada publicación. He aquí el equipo actual de agentes.

LEKAIMEEN ZERBITZUAK (2001)

Frantziskotarrena Familia zabala da Euskal Herrian ere. Adibidez, gaur egun 34 Monasterio dira moja frantziskotarrenak (klaratar eta sorkundetarrenak). Horrek eskakizun eta erantzukizunak ditu fraideentzat. Horregatik, Arantzazuko zenbait fraide berezikiago arduratu da Komentu horiei beren zerbitzuak eskaintzen. Hauetakoak ditugu argazkian ageri direnak. ESERITA, J. Zubieta, L. Esnal eta E. Errasti. ZUTIK: P. Zabala, M. Mendizabal eta J. I. Larrea.

AL SERVICIO DE LAS RELIGIOSAS (2001)

Las religiosas franciscanas, particularmente las de clausura, han sido objeto de la atención del Santuario, y algunos de los miembros de la Comunidad se han consagrado a su servicio. En la foto, religiosos más expresamente dedicados a esta tarea.



ANAIA ZAHAR ETA GAIXOAK (2001)

San Frantziskoren aginduz, Anaia gaixoak zaintzeak izan behar du Senitarteko agintarien ardurua nagusia. Arantzazun orain Anaia gaixo eta zaharrek leku zaindua dute, bere eritegi eta guzti, halakorik behar denean. Argazki honetan aurkezten dira Komentu-Etxe honetako adinekoak eta eriak. ZUTIK (ezker-eskuin): Julian Alustiza, Luis Agirre, Euljio Agirregabiria, Bitorio Beain, Joxe Mari Beristain. ESERITA: Valentín González, Bixente Zubiarrain, Joxe Mari Aranburu, Jose Atxukarro.

LOS HERMANOS ANCIANOS Y ENFERMOS (2001)

Por voluntad de San Francisco, la primera responsabilidad de los Superiores franciscanos debe ser el cuidado de los enfermos y ancianos necesitados. Por tanto, la actual Comunidad del Santuario cuida de ellos con todo esmero, y dispone del personal necesario -propio y contratado- para sus servicios de enfermería.